

HIRU URTE

Garazi Alegria Goienetxea

Pasaia Donibane

Arrotza egiten da berriro ere ene gelako leihoa ireki eta itsasoko argia ikustea, kresalaren usaina nabaritzea edo oheko manta artean uzkurdu eta berriro ere etxean sentitzea, hiru urteren ostean. Etxeko epeltasunean, dena amaitu dela dirudi, jada urrunak dirudite erietxeko gela ilunek edo itzarrita igarotako gau hotz eta amaigabeek. Horrek guztiak amesgaiztoa dirudi orain, baina nire aurrean dirauen ispiluak bestelakoa dio; hura ikusi orduko, sentitu dudan hotzikarak oraindik ez naizela esnatu gogorarazi dit, oraindik ez dela bukatu amesgaiztoa. Denek lasai egoteko diote, orain ohikoa dela berriro ere etxera itzuli eta bizitza berria hasteari beldur izatea, segituan ohituko naizela eta dena ahaztuko dudala ordea. Baina nik ez dut ahaztu nahi. Gogorra izan da, hiru urte luze igaro ditut erietxean bulimia gainditu nahian, bizitza eta heriotzaren artean, gaixotasunaren aurka, nire indar guztiakin borrokatuz. Batzuetan, sufrimendu hark merezi ote zuen galdetu izan diot neure buruari, baina beti aurrera egiteko indarra atera izan dut.

Bat-batean, errealitatera itzuli, eta loguraz ziplo nagoela ohartu naiz. Jada ez naiz begiak irekita mantentzeko gauza, baina nire gauzak jasotzen bukatu nahi dut lehendabizi, nire etxean kokatu.

Lurretik motxila hartu dudanean, zeinen ahul nagoen ohartu naiz. Motxilan nire arropa eta erietxeko gelako argazki pare bat besterik ez dago, baina, nik ia ezin dut lurretik jaso. Mingarriena, hau guztia gertatu baino lehen, horrelako gauzen aurrean ez nuela batere arazorik izango jakitea da. Berrogeita zortzi kilo, hori da nik lortu beharreko pisua, baina, egunen batean, benetan lortuko al dut? Pisu horrekin ahalegin handirik gabe poltsa lurretik jasotzeko gai izango nintzateke. Oraindik berrogeita lau kilo besterik ez naiz, eta egiteko hauek oso neketsuak dira niretzat. Horrenbestez, ohean etzan naiz nekeak jota, argia itzali baino lehen, lo geratu naiz.

Goiz argitu du gaur egunak, beste dizdira bat du eguzkiak, edo hala iruditzen zait behintzat. Nire gau-mahaiko iratzargailuak zazpiak direla dio, gosaltzera jaisteko ordua dela ohartu naiz. Ez daukat gogorik, eta inork behartuko ez nauela jakitea oso tentagarria gertatzen da, baina infernu hartara ez naizela berriz itzuliko erabakita dut. Beraz, sukaldera jaitsi eta ogi txigortua prestatu ondoren, mahai inguruan eseri naiz. Platerera begirada zuzentzean, azken hiru urte hauetako oroitzapenak datozkit burura. Dena lauso dago, ordea, eta ondorioz, zaila egiten zait bizitakoa bergogoratzea.

* * *

Infernu honetako bideari noiz ekin nion, ez dut argi. Ez dakit telebistako neska perfektu hura ikusi nuenean ala besterik gabe, dendako prakak sartu ez zitzaizkidanean izan ote zen. Hasieran, ispiluaren aurrean jarri eta nahi nukeen bezain argal ez nengoela ikustean zetorkidan burutapena zela gogoratzen dut. Geroz eta garrantzitsuagoa egiten hasi zena, azkenean, uneoroko obsesio bihurtu zen arte. Ohartu nintzenerako beranduegi zen. Izan ere, jada ez zen nik kontrola nezakeen zerbait, ordurako, gizentzeko ametsgaiztoak kontrolatzen ninduen ni. Zer egin zeure buruaren jabe ez zarenean? Eta oraindik laguntza behar duzula eta bakarrik ezin duzula aurrera jarraitu onartzen ez duzunean?

Zorionez, nire ingurukoek ez zuten denbora luzerik behar izan gertatzen zitzaidanaz jabetzeko.

Egun gutxiren buruan, anorexia eta bulimia tratatzeko zentro berezitan nengoen. Denek zioten hori zela onena, baina, hara iritsi nintzen unean, beldurra zen nire buruaren jabe. Naroak, nire erizainak, zentroko funtzionamenduaren berri azaldu zidan, ostean, hurrengo hiru urtetan nirea izango zen logela erakutsi zidan. Oporretara joan izan banintz agian, leku polita eta atsegina irudituko zitzaidan. Egun hartan, ordea, arrazoa beste bat izanik, gelako horma moreek, ohe ondoko loreek, ezin zuten bertako giro hotza goxotu eta leihotik begiratzean, begizatzen ziren zelai berdeek ez zuten nire barneko bakardadea besterik islatzen.

Aste bukaera aldera, bazkalorduan, Naia lehen-dabizikoz nigana hurbildu zen. “Berria zara, ezta?” galdetu zidan, eskolara iritsi berria zen ikaslea banintz bezala. Ez nuen inorekin hitz egin nahi, ez nuen neska haren errukirik behar, nik ez bainuen han egon behar. Gogo txarrez, oraindik ukitu gabeko platerari so, baietz ihardetsi nion. “Pozten naiz. Badakit hasieran hau oso gogorra dela eta bizitzarekin haserre egongo zarela pentsatzen dut. Nahi baduzu, lagunduko dizut. Izan ere, ni igaroa naiz horretatik” erantzun zidan. Berehala, jaso nuen begirada, aurrean nuen hari zerbait esateko intentziaz. Zer zekien berak sentitzen nuenaz, eta nork esan zion laguntza behar nuela? Istant hartantxe so geratu nintzaion; oso ederra zen, argalegia egon arren. Irribarre egin nuen, denbora luzean lehen aldiz.

Hilabeteak, nahiz gabonak igaro ziren eta baita hurrengo uda ere. Naia eta ni banaezinak ginen. Gaixotasunari zegokionez, hasieran bezalaxe. Jantokian nahiz komunean, zaintzaileen begiradapean jarraitzen genuen, egunero pisatuz. Latza izan arren, sendatu nahi izanez gero, trantze hura jasatea ezinbestekoa zen.

Nik hobekuntza txikiak lortu arren, Naiak ez zuen zorte bera izan. Hura guztia jasanda ere ez zion pisua galtzeari utzi. Denbora igaro ahala, bere osasuna gainbehera zihoan, eta, azkenean, erietxera eramanez behar izan zuten. Bi astez, egunero idatzi zidan eta bi egunetik behin hitz egiten genuen telefonoz. Ezerk ez zuen balio izan, ez nire eskuti-

tzek, ez bidalitako argazkiek ezta gure irriek ere. Gauzak horrela, handik gutxira ezin izan zuen gehiago idatzi, ez zuen nirekin telefonoz hitz egiteko adina indar, hala, inoiz izan dudan lagunik hoberena, inoiz izan ez dudan ahizpa, gutxinaka itzaltzen joan zen.

Naiaren heriotzak izugarri eragin zidan. Ez nintzen bere laguntzarik gabe gaixotasunari aurre egiteko gai ikusten, eta astiro, berriz ere, pisua galtzen hasi nintzen. Jasangaitza zen, jangelara joan eta nire ondoko aulkia hutsik ikustea eta are latzagoa, arratsalde luzeak bera gabe igaro behar izatea. Denbora luzea igaro gabe, ni ere erietxera eraman ninduten. Egunez egun, okerrerantz nindoan, eta ez medikuek ezta nire gurasoek ere, gaitza saihesteko ezin zuten ezer egin. Nik, gainera, ez nekien zulo hartatik atera nahi ote nuen, edota sufrimendu harekin nire bizitzarekin behingoz amaitzea hobe ez ote zen.

Gau batean, atearen zaratak iratzarri ninduen. Norbait sartua zen nire gelan. Gurasoekin hitz eginen hasi zenean, ezagutu nuen medikuaren ahotsa. Lokartuarena egitea otu zitzaidan, esan beharrekoa entzuteko, segidan, damutu nintzen. Horrela jarraituz gero, astebete gehiago ez nuen iraungo. Buruan nituen galderei erantzuna eman zion horrek. Heriotza hain gertu ikusteak bizitzen jarraitu nahi nuela argitu zidan. Egoera hartan Naiari emandako hitzaz oroitu nintzen, kosta ala kosta etxera itzuliko nintzela.

Ondorengo egunak erabakigarriak izan ziren. Erietxetik irteteko indar osoz heldu nion bizitzari. Zentrora itzuli nintzenean, gauzak berdintsu joan ziren. Kostata, baina aurrera atera nintzen. Pixkanaka hasi nintzen berriro ere pisua irabazten, jatekoa jarritako denboran bukatzen eta egin beharreko ariketak ongi egiten nituen. Egun batean, ispiluaren aurrean jarri behar izan nuen arte. Espero bezala oraindik ez nuen benetan nintzen bezalakoa ikustea lortu, oraingoan behintzat, banekien bertan ikusten nuena ez zela benetakoa. Asteak igaro ahala, ispiluan islatzen zen neska argaltzen zihoan nik pisua hartzen nuen bitartean. Laster, hiru urtetan desiratutako alta jaso nuen.

* * *

Oraindik ez naiz sendatu, egia da, badakit lortuko dudala. Etxean, nire lagunez inguratuta tinko jarraituko dut berrogeita zortzi kiloak lortu arte. Badakit ez dudala Naiak bezala bukatuko. Horregatik, aurrean dudan ogi txigortua hartu eta ahora eraman dut.